

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Europako finantzaketa eskatuko duen proiektu bat lantzen ari dira Nafarroako Pirinioetako hegaztiak behatzeko

*3 milioi hegazti ikusi dira azken bost urteotan Auritzeko Lindus muinotik, haren altuera eta kokapen geografikoagatik hegaztien pasabiderako estrategikoa den puntua*


Jueves, 10 de septiembre de 2015

Azaroaren erdialdera arte, urtero errepikatzen den fenomeno natural hori ikus daiteke. Europako herrialde guztietatik datozen 80 hegazti-espezie inguru ikus daitezke Nafarroako Pirinioetan.

Jakina denez, beren hazkuntza-kuarteletan uda igaro ondoren, hegaztiak Iberiar Penintsulako hegoaldera eta Afrikara joatea aukeratzen dute negua igarotzeko. Hegoaldean, hegaztiak babesa, janaria eta bizirauteko klima egokia topatzen dute. Baina negua amaitzen denean, hegaztiak Penintsula iparraldera edo Europara itzultzen dira kumeak hazteko eta, askotan, habia berberera ere.

Lindusko muinoa puntu estrategikoa da migrazio-pasabiderako hark duen altuera eta kokapen geografikoagatik. Hegazti asko egoteak eta haiek dituzten ezaugarriek paraje hori hegazti harrapari nahiz beste planeatzaile batzuk gehien ikusten diren Europako gune bihurtu da udazkeneko migrazio-aldian (ezteien ondoren).

Pirinioak zeharkatzen dituzten hegaztiak aztertuz, espezien Europako populazioak nola dauden, horri buruzko erreferentziak jasotzen dira, esaterako: miru gorria, beltza, zikoin txuria, kurrilo arrunta, pagausoa... Europa osotik etorritako 80 espezie dira udazken bakoitzean ikusten uzten direnak behatoki-puntu horretatik. Harrapari migratzaileen % 85 baino gehiagok puntu hori zeharkatzen dute.



Hegaztien migrazioa.

### **3 milioi hegazti baino gehiago igaro dira azken 5 urteotan Lindustik**

Lindus jadanik ezaguna zen Nafarroako hegaztien ornitologo eta zaleen artean, bai eta Organbidexka Col Libre elkarte frantsesaren artean ere; azken horrek urte asko daramatza inguru horretako hegaztien migrazioa behatzen eta aztertzen. 2010. urtetik aurrera, ordea, hasi zen sistematikoki garatzen Lindus Proiektua `Hegaztien migrazio-behatokia Bide Atlantikoan´ eta, hari esker, 3 milioi hegazti baino gehiago kontabilizatu dira muin horretatik pasatzean.

Izan ere, Nafarroako Ingurumenaren Kudeaketa (GAN) enpresa publikoaren bidez Nafarroako Gobernuak lankidetzan aritu den proiektu hori, 2007-2013 aldian Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen barnean (POCTEFA) izan zen, eta Europar Batasunak % 65ean kofinantzatu zuen EGEFen funtsekin. Gainerakoa Nafarroako Gobernuak eman zuen eta, Frantziako aldean, Conseil Régional d'Aquitaine-k (Akitaniako Eskualdeko Kontseilua), Conseil Général des Pyrénées Atlantiques-ek (Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra) eta Direction Régionale de l'Environnement, de l'Aménagement et du Logement d'Aquitaine-k (Akitaniako Ingurumen, Plangintza eta Etxebizitzako Zuzendaritzako Eskualdeko Zuzendaritza).

Azken bi urtetotan (jadanik Europako finantzaketa ez du izan), hegaztien migrazioa uztailaren 20tik azaroaren 15era jarraitu da Lindusen Nafarroako Gobernuaren eta Ligue pour le Protection des Oiseaux (LPO) hegaztiak kontserbatzeko Frantziako GKEren artean partekatutako lanaren bitartez.

Abuztuan eta irailean ornitologo profesional batzuk izaten dira mendian, eta haiek hegazti migratzaileekin kontaketa egiten dute Lindus eta Tornako mendietatik. Profesionalak eguneko argi-ordu guztietan izaten dira mendian, migrazio-bide hori aukeratzen duten hegaztiak identifikatuz eta zenbatuz Europa iparraldeko negu hotzetik ihesteko.

LINDUS proiektuak ingurumen-sentsibilizazioko eta behatzaile berrientzako eskola bihurtu nahi du ere. Horregatik, eta kontatzeko lanetan lagunduz, mendiko zeregin guztietan laguntzen duten ingurumen-boluntarioek parte hartzen dute. Oraingoz, 6 herrialde eta 10 autonomia erkidegoetako boluntarioek parte hartu dute.

### **Klima-aldaketaren aurrean hegaztiak dituzten jokabide berriak**

Urteak aurrera egin ahala, datu gehiago daudenean, klima-aldaketak hegazti migratzaileetan zer eragin duen jakin ahalko da, eta hegaztien migrazioa klima-aldaketari lotutako adierazle modura erabili ahalko da.

Aipatu behar da hegazti migratzaileak beren ibilbideak nahiz pasatzeko datak aldatzen ari direla tenperatura-aldaketak tarteko. Espezie batzuk ere migratzeari utzi diote.

Hegaztien migrazioa ikusteko Lindusko muinora joateko interesa duten guztiek Ibañetako mendatetik egin dezakete, Orreagan; han, ezkerraldeetik asfaltatutako pista bat abiatzen da, eta 3 kilometroko bidea osatu ostean muinora heltzen da.

2 ordu inguruko oinezkoen paseo bat ere egin daiteke Auritzeko udalerritik abiatuta (Auritz-Xuringoa-Lindus).